

EUSKARA ARDATZ

Lehentasunezko hizkuntza hautatzeko aukera Osakidetzan

“Lagundu egizu hobetzen: aukeratu zure hizkuntza!” lelopean komunikazio kanpaina abiatu du Osakidetzak, herritarrei lehentasunezko hizkuntza hautatzeko aukera dutela jakinarazteko :

[Albiste osorik](#)

Mezu elektronikoak egoki idazteko aholkuak

Arau orokor gisa, ez da komeni erantzuteko epea lanegun bat baino gehiago luzatzea. Alabaina, ezin bada egunean bertan erantzun, hartzaileari mezua irakurri duzula eta aurrerago erantzungo diozula jakinaraztea hobea da..

[Albiste osorik](#)

Euskarazko ehundaka azpigitulu askatu ditu Jaurlaritzak

Open Data Euskadi atariaren bidez askatu ditu. Creative Commons-BY lizentziapean daude eta libreki berrerabili daitezke, jatorriari aitortza eginez, baita telebista edo streaming zerbitzuek ere (HBO, Netflix, Filmin...).

[Albiste osorik](#)

“Lehen hitza euskaraz egiteko konpromisoa hartu behar da”



Eibar Kirol Elkartearen Euskera Plana aurkeztu dute Ipuruan Mikel Larrañaga klubeko Presidenteordeak eta Olatz Olosok, planaz arduratuko den Emun enpresako zuzendariak. Iazko azaroan egindako Batzar Nagusian hartutako konpromisoa gogora ekarrita hasi du aurkezpena Mikel Larrañagak: *“Euskararen erabilera sendotu eta kalera ateratzeko konpromisoa hartu genuen eta gaur hori aurkezteko eguna da. Egun handia da hizkuntza hau maite dugunontzat”*.

Gaineratu duenez, *“euskararen erabileraren inguruko diagnostikoa sortzea eragin duen barne gogoeta egin du Klubak. Lehen hitza euskaraz egiteko konpromisoa hartu behar da. Gu geu euskararen erabileran eredu izan behar gara, besteek ere gauza bera egin dezaten. Beste erakundeekin batera erabilpena zaintzen badugu, oso positiboa izango da”*.

[Albiste osorik](#)